

Markinako Peru Abarka narrazio laburren lehiaketa otsailaren 4an amaituko da

Markinako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Herri Bibliotekak Peru Abarka narrazio laburren lehiaketaren seigarren edizioa martxan ipini dabe. Deialdia bi ataletan banatuta dago. Lehenengoan, narrazio onena aukeratuko dabe, eta bigarreanean, idazlan hori ilustratzeko proposamenik onena aukeratuko dabe.

Lehiaketan 18 urtetik gorako edozeinek parte hartu ahal izango dau eta lanak Markinako Erregistro Orokorrean bertan aurkeztu edo bertara postaz bidali ahal izango dira, beti be, otsailaren 4a baino lehen. Gaiari jagokonez librea izango da baina, gehienez, 12.000 karaktere eta, gitxienez, 9.000 euki beharko dauz. Betiko moduan, DIN A4 tamainako orrietan idatzita aurkeztu beharko dira. Epaimahaiak 1.700 euro eskuratuko dauzan irabazle bakarra aukeratuko dau.

Lanak aurkezteko epea gaindituz gero, antolatzaileak ilustrazino lehiaketa ipiniko dabe martxan eta irabazleak bilduma formatoan editatuko dan narrazioaren pasarteak marrazkiakaz irudikatzearen ardura hartuko dau. Kasu honetan, parte-hartzaileek lanaren kopia bakarra aurkeztu beharko dabe gutunazal itxi batean gordeta. Horretan, ganera, ez da egilearen izenik ipiniko, ezta CDan bez. Agertu behar dan datu bakarra lanaren titulua edo goitizena izango dira.

Datuak

Gutunazalaren barruan titulu edo ezizen berbera daukan beste gutunazal bat sartu beharko dabe. Bigarren horretan, autorearen izen-abizenak, telefono zenbakia, jaiotze-eguna, posta elektronikoa eta helbide osoa idatzita agertu beharko dira. NANaren fotokopia bat be sartu beharko dabe barruan egileek. Parte-hartzaileek, gehienez be, bina lan aurkeztu daikiez. Irabazten ez daben lanen jabetza autorearena euren izango da.